

SEVE CALLEJA: "Ez dago gazte literaturarik, irakurtzeko era gaztea baizik"

Haur eta gazte literatura deritzan hori ikuspegi askotatik landu du Seve Callejak (Zamora, 1953). Ikuspegi teorikotik nahiz praktikotik eta, dimentsio praktiko horretan, idazle zein institutuko irakasle bezala. Horregatik galdetzen diote horren maiz zer den bere ustez haur eta gazte literatura deritzan hori, eta berak dio, gazte literaturari dagokionez bederen, ez dagoela gazte literaturarik, literatura irakurtzeko era gazte bat baizik. Horrexegatik ez zaio beharrezkoa iruditzen ' Akiles eta dortoka ' liburua helduentzako edota gazteentzako liburua den argitzea. Izan ere, irakurtzeko eraren arabera bilakatuko da helduentzat edo gazteentzat Juan Luis Zabalak euskaratu eta Alberdaniak argitaratu duen eleberri laburra, non Akiles heroi mitologikoa eta dortokaren arteko lasterketaren inguruko kontakizun klasikoak atzekoz aurrera jarri duen. "Jarrera kontua da", dio Seve Callejak.

-Heroi mitologiko batengana jo duzu 'Akiles eta dortoka' liburuan. Mito klasikoak betierekoak direla uste duzun horietakoa zara?

-Mito klasikoak paradigma hutsak dira, ereduak... Antzinako kontuak iruditzen zaizkigu, baina gaurko mitoak ere hor dauzkagu, zinemak, musikak edota kirolak proposatzen dizkigutenak. Azken batean, horiek ere imitatze moduko eredutzat ditugu. Horrez gain, ikasle garaietatik asko gustatu izan zaizkit niri latina, grekoa eta hizkuntza horiekin batera zetorren mundua, mitologia klasikoa barne.

-Hala ere, sekulako buelta eman diozu Akilesi. Zure Akiles horrek ez du zerikusirik Homerok Iliadan irudikatu zuen heroi ahaltzuarekin. Desmitifikatzeko eginak dira mitoak?

-Askotan heroiek, baita gaurkoek ere, plastikozkoak ematen dute, oso urrutikoak dira. Hurbildu egin behar dira, nolabait. Nire ustez, benetako heroia Woddy Allenen ' La rosa púrpura de El Cairo ' filmekoa da, pantailako bere mundutik irten eta gizakiarengana hurbiltzen dena. Zentzu horretan, nire asmoa gauzak desmitifikatzea izaten da beti, baita idazlea bera ere... Heroiak hurbiltzea eta gizatiartzea, hori da gakoa.

-Beharrezkoagoa da ariketa hori antzinako mitoekin gaurkoekin baino? Gizatiartze lanik gabe, haur eta gazteengana iristeko gaitasunik badute heroi klasikoak?

-Gaia pixka bat aztertzen baduzu, ikusiko duzu zein antzekoak diren heroi klasikoak eta gaurkoak. Komigile eta gidoigileek hori ondo dakite, eta atzoko eta gaurko heroiaren profilen artean ez dago alde handirik. Badago, ordea, erreferentzia kontu bat. Erlijioarekin zerikusia duten erreferentzia ia denak galdu egin dituzte gaurko haur eta gazteek, eta erreferentzia horiek ez badituzu, sinestun izan edo ez, oso zaila da klasikoak ulertzea. Horregatik iruditzen zaizkie gaur egun haur eta gazteei antzinako kontuak mitologia, erlijioa, baita folklorea bera ere. Azken batean, ez dituzte ulertzen, eta horretan irakasleok erantzukizun handia dugu.

-Baina badituzte ordezkioak. Zer iruditzen zaizkizu, esate baterako, Harry Potter edota oraintsu arte horren modan egon diren banpiroak?

-Ez daukat ezer Harry Potterren edota ' hozkadatxoaren literaturaren ' kontra baina, azken batean, literatura seriatu horrek ematen duena espektatiba da, espektatiba hutsa. Orain gutxi irakurri nuen moduan, etorriko denaren nostalgia bultzatzen dute bata bestearen ostean iristen diren liburu horiek. Ikuspegi

horretatik marketing hutsa dira, baina beti dute eredu edo irakaspen ezkututik bat, eta hori beti izan ohi da onberatasunaren gorazarrea. Gaur egungo gazteek irakurtzen duten literatura guk umetan irakurtzen genuena baino onbidezkoagoa da. Askotan, gainera literatura txarra da, gaizki idatzita dago. Badakit irakurle askorentzat oso garrantzitsua izan dela Harry Potter, baina monotematikoa da, eta monotematikoa den neurrian pobrea da. Ikuspegi eta literatura mota gehiegi daude liburu sorta bakar batean gelditzeko...

-Harry Potterrenak ez bezala orrialde gutxikoa izanagatik, gai ugari ukitzen dituzu zeu ' Akiles eta dortoka ' eleberrian, ez da inondik ere monotematikoa.

-Interesatzen zitzaidan azaltzea, besteak beste, zer gertatzen den heroi batek porrot egiten duenean. Akilesi hori gertatzen zaio, baina bigarren aukera bat ematen diote, eta bigarren aukeraren hori ere gai garrantzitsua da liburuan. Askotan egiten dugu porrot gure bizitzan -ikasketetan, harremanetan...-, eta nik uste dut guztiok merezi dugula bigarren aukera hori. Herri batzuetan porrot egin ondoren berriro saiatzen dena pertsona ausart eta adoretzuetatik daukate. Beste batzuetan, ordea, behin porrot egiten baduzu ez duzu ezertarako balio, eta hori gezurra da... Hori islatzeko oso ondo zetorkidan Akiles. Badago hirugarren gai garrantzitsu bat, laguntza beharri buruzkoa.

-Eta hor dago dortoka...

-Bai, dortoka ez da pertsonaia inozoa, jakinduriaren isla baizik.

-Irakasleak, oro har, badu dortoka bokazio edo konplexurik?

-Irakasleok askotan demiurgotzat dugu geure burua, egia da. Agian ez luke horrela izan behar baina, nolabait, prest zaude beti zirikatze, bideratzeko, dortoka lana egiteko... Haurrek, gainera, jakinduria oso ondo hartzen dute. Eta, hau prepotentzia hutsa bada ere, kasu askotan dortoka lana egingo duenik ez dute etxean aurkitzen. Hartara, andereñoa edo maixua bilakatzen da beraientzat erreferentzia eredugarria.

-Zure 'dortoka lan' zehatza Bilboko institutu batean literatura irakastea da. Orain hilabete batzuk Idurre Alonso ikerlariaren tesiak gogor kritikatu zuten literatura irakasteko modua. Bat zatoz kritika horiekin?

-Erabat ados nago. Argi eta garbi daukat inportantea irakurzaletasuna sustatzea dela, ez literaturaren historia irakastea. Jakinduria entziklopediko hori wikipedian edo liburutegian daukate, eta bilatzen irakatsi behar zaie, buruz ikasteak ez dauka zentzurik. Gaur egun irakaskuntzan hitz magikoa 'konpetentzia' da, 'gaitasuna'. Ulertzeko eta adierazteko gaitasuna izan behar dute ikasleek, eta hori da irakurzaletasuna sustatuz lortuko duguna.

-Hori lor daiteke derrigor irakurri behar diren liburu zerrenda itxien bitartez?

-Zerrenda horiek espediente betetzeko modu hutsa izaten dira maiz, eta zerrendetan dauden liburuak irakurri gabe dauzkaten irakasleak ere badaude... Neurri batean, dena den, zerrendak beharrezkoak dira, oso lagungarriak gertatzen zaizkigu irakasleoi preskriptore lana egiteko. Ikasleari aukera sorta bat eman behar diozu, ezinezkoa du hutsetik abiatuta hautatzea, nahiz eta gero denek antzeko liburuak aukeratzen dituzten... Irakurketaren inguruko arazoak aipatzen direnean, ardura nagusia ikasleei leporatzen diegu beti, baina errua irakasleona da gehienetan, oso gutxi irakurtzen duten irakasle ugari baitaude. Eta hori haurrek segituan igartzen dute, gauza artifizialak proposatzen zaizkienenean berelaha konturatzen baitira,